



<b>Ekipoa</b>	<b>KOLen emisioak adsortzioaren bidez tratatzeko unitatea, disolbatzaileak berreskuratzen dituena</b>
<b>Kodea</b>	B-2002
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- KOLen emisioak minimizatzea.</li> <li>- Disolbatzaileak berreskuratzea, erabiltzeko.</li> </ul>
<b>Honetan datza:</b>	<p>Emisioak tratatzeko sistema bat da, konposatu organiko lurrunkorrak (KOL) ikatz aktiboaren poroetara adsorbatzen dituena. Disolbatzaileak dituen airea iragazi eta hozte-bateria batera bidaltzen da. Haizagailu baten bidez, adsorbatzailerara bidaltzen da, ikatz aktiboan zehar pasatzen da, eta disolbatzaileak adsorbatuta geratzen dira.</p> <p>Karbonoa disolbatzailez kargatuta dagoenean, adsortziotik desortziorako aldaketa hasten da. Desortzioan lurruna injektatzen da korrontearen kontra, ikatz aktiboan zehar. Disolbatzailea arrastatu egiten da, eta ur- eta disolbatzaile-lurrunen nahastura kondentsazio- eta hozte-trukagailuetara pasatzen da. Kondentsatu ezin direnak sarrerako hodira itzultzen dira.</p> <p>Ur- eta disolbatzaile-lurrunen nahastura, kondentsatu eta hoztu ondoren, dekantagailura edo distilagailura pasatzen da.</p> <p>Ikatx aktiboa lehortu eta/edo hoztu egiten da, xurgatzailean bihur dadin.</p>
<b>Honako hauetan aplikatu daiteke</b>	<p>Kanpoan geratzen dira IPPC jardura hauek: teknologia hori teknika erabilgarri onentzat (TEO) daukaten, urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua bete behar duten eta indarreko legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatzen duten edo dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzeko eskatu zaien jarduerak.</p> <p>Disolbatzaileetatik datozen KOLen emisio atmosferikoen tratamendua:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egurra prozesatzeko industria (NACE 16).</li> <li>- Ehungintza (estaldurak) (NACE 13.3).</li> <li>- Inprenta (NACE 18).</li> <li>- Automobilgintza (NACE 29).</li> <li>- Industria kimikoa (NACE 20).</li> <li>- Metalaren industria (NACE 24).</li> <li>- Industria farmazeutikoa (NACE 21).</li> <li>- Oinetakoen industria (NACE 15.2).</li> <li>- Findegiak (NACE 19.2).</li> </ul>